

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa mundu osoan famatua edo ezaguna izatea bilatzen dugu. Gure helburua da; enpresa, fabrika edo etxe handiak gure produktuaren (Cleanwinrob) existentzia edukitzea, batez ere, robot hau haiei zuzenduta dagoelako.

Lehenik eta behin, enpresa batzuekin kontaktuan jarri beharko gara gure produktua beraien webgune eta denda fisikoetan honen informazioa jar dezaten. Modu honen bitartez jendeak Cleanwinrob-en ezagutza edukiko du.

Enpresa haiek mundu osoko existentzia duten konpainiak izan behar dira, adibidez, *Amazon* bezalako enpresak. *Amazon* kontinente guztietan zerbitzatzen du, eta horrelako enpresak behar ditugu gure produktua saltzeko, erabiltzeko, eta etekinak ateratzeko aukera gehiago izateko.

Bigarrenik, udaletxearekin kontaktuan jarriko gara, baimena eskatzeko, gure produktuari buruzko “speech” moduko bat Kursalean emateko. Enpresek speech horren ezagutza izateko, beraien kontaktuan jarriko gara gonbidatuak daudela esanez. Enpresa asko urrun daudenez, pentsatu dugu “directo” moduko bat egitea gure webgunetik eta baita youtube-tik ere. Speech-a gazteleraz izango da, baina mundu oso uler dezan, “directoan” sartzekoan hizkuntza bat erabakitzeko aukera izango dute, beraz hizkuntza erabakitzerakoan subtituluak eta ahots bat entzuteko aukera izango dute dena ondo uler dezaten. Speech honetan dena azalduko zaie, nolakoa den bere erabilera, ze nolako abantailak dituen etab. hau da, informazio orokorra eta garrantzitsuena emango zaie.

Azkenik, iragarki bat jarriko dugu telebistan. *Oblicua*-rekin jarriko gera kontaktuan gure iragarkia telebistan ager dezan. Iragarki horretan, *Cleanwinrob*-a agertuko da bere lana egiten, horrela jendeak jakingo du nolako emaitzak dituen produktu honek. Gure enpresaren webgunea eta telefonoa agertuko da, gurekin kontaktuan jartzeko aukera izateko.